



Ebazpena, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearena, ikertzaile doktoreen 2024rako Hobekuntzarako Doktoretza Ondoko Programaren onuradunek atzerriko lantokietan egiten dituzten egonaldietan mugikortasun-baldintzak eragindako gastuak finantzatzeko laguntzen deialdia ebazten duena (Ikermugi+).

Hezkuntza sailburuaren 2024ko otsailaren 13ko Aginduaren bidez (otsailaren 20ko EHAA, 37. zk.), 2024an doktoreak diren ikertzaileen Hobekuntzarako Doktoretza Ondoko Programaren onuradunen atzerriko destino-zentroetako egonaldietan mugikortasun-baldintzak eragindako gastuak finantzatzeko laguntzetarako deialdia egin zen, eta Aginduaren 10. artikuluan jasotzen den bezala, honakoa

E B A T Z I D U T

Lehenengoa.- I. eranskinean agertzen diren onuradunei ematea ikertzaile doktoreen 2024rako Hobekuntzarako Doktoretza Ondoko Programaren onuradunek atzerriko lantokietan egiten dituzten egonaldietako ostatu- eta mantenu-kostuak finantzatzeko laguntzak, zenbatekoa zehaztuz.

Bigarrena.- Ebazpenaren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango diote Hezkuntza sailburuari, jakinarazpena eta biharamunetik hasita, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteizen, sinaduraren datan

ADOLFO MORAIS EZQUERRO
UNIBERTSITATE ETA IKERKUNTZAKO SAILBURUORDEA